

**FILOSOFIA**

**DEPARTAMENTUA**

**MINTEGIA: FILOSOFIA**

**ZERTARAKO**

Filosofia ikasgaiaren norberaren burua eta inguratzen gaituen mundua hobeto ulertzen ahalegindu nahi dugu, hori baita hain zuzen ere, modu arduratsuago eta askeagoan bizitzea ahalbidetzen duena.

Gutariko bakoitzaren galderak, kezak eta zalantzak azaleratze eta argitze aldera, filosofiaren galdera klasikoak izango ditugu bidelagun eta aitzaki, elkarrekin erantzunen bila abiatu ahal izateko.

Horregatik, ikasgai honetan ez dugu erantzun zehatzik eman nahi, helburua norberak bere bidea egiten ikastea baita.

**ZER IKASIKO DUZU**

Ikasgai honetan ikasiko duguna ez da eduki edo kontzeptuetara murrizten, filosofia batez ere **jarrera** bat baita.

Batez ere ikasiko dugu:

- Filosofiaren galderen inguruan sakontasunez **hausnartzen: Nor naiz ni? Zer jakin dezaket? Zer egin dezaket? Zer da gizakia?**
- Inguratzen gaituen mundua, etengabe aldatzen ari dena, **jarrera kritiko** batekin **interpretatzen**.
- Norberaren pentsamenduak besteekin nahiz filosofo ezberdinekin **kontrastatzen**.
- Norberaren ikuspegi propioa **adierazten**.
- Norberaren pentsamenduak nahiz ikuspegia **partekatzeko** elkarrizketa filosofikoan trebatzen.
- Elkarrekin filosofatuz modu teoriko batean ikasten duguna egunerokotasunean **aplikatzen**.

Bide horretan landuko ditugun edukiak:

1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zer da filosofia?</li> <li>• Elkarrizketa filosofikoan trebatzen.</li> <li>• Ezagut ezazu zeure burua: nortasuna, emozioak, identitatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mundua ezagutzen: Egia eta errealitatea.</li> <li>• Identitate pertsonala eta sozializazioa. Norbera besteekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nola bizi gara, nola bizi nahi dugu eta nola bizi behar dugu?</li> <li>• Mundua adierazten: Estetika edo artearen filosofia.</li> <li>• Mundua eraldatzen: Etika edo moralaren filosofia.</li> </ul>

<b>METODOLOGIA</b>	<p>Askotariko informazio-iturri, baliabide eta materiala erabiliko dugu: testuak, ipuinak, poesia, filmak, bideo zatiak, filosofia bisuala, sormenerako materiala...</p> <p>Zenbait auzi filosofiko aitzakitzat hartuta, borobilean jarrita elkarrizketa bultzatuko dugu. Horretarako ezinbestekoa izango da elkarren artean konfiantzazko eta errespetuzko giroa sortzea.</p> <p><i>Kafe filosofikoak</i> egingo ditugu: taldeka antolatuta, eta talde bakoitzeko idazkari bat prest dagoelarik, soluzioak garbi ikusten ez zaizkien egoerak planteatuko ditugu. “<i>Kafea</i>” hartuz eta giro atseginean ikasleek soluzio posibleak bilatuko dituzte arrazoiketa erabiliz, eta idazkariak ideia esanguratsuenak bilduko ditu. Amaieran, ideiak partekatuko ditugu.</p> <p>Ikasleengandik sor daitezkeen kezka, galdera edo interesetara egokitzeko irekita egongo gara.</p>
<b>EBALUAZIOA</b>	<p>Filosofia 4.DBH-n hautazko ikasgaia den aldetik, ikasleek klasean azaltzen duten arreta aktiboak, interesak eta errespetuzko parte hartzeak berebiziko garrantzia izango dute ebaluazioan.</p> <p>Horretaz gain, ikasgaia taldekako nahiz bakarkako lanen bidez ere ebaluatuko da.</p>
<b>OHARRAK</b>	<p>Hemen aipatzen dena hasierako proposamen bat denez, malgutasunez tratatuko dugu, unean uneko egoerei eta eskaerei erantzuteko.</p>